



# Pil-pilean

TXINATARRAREN  
Soraluzeko hilabetekaria  
2021eko ekaina · 376 alea

**25 urte zuekin**

FUNDAZIOA  
FUNDACIÓN

## Sancho el Sabio

EUSKAL KULTURAREN  
DOKUMENTAZIO ZENTRO  
CENTRO DE DOCUMENTOS  
DE LA CULTURA VASCA  
CENTRE DE DOCUMENTS  
DE LA CULTURE BASQUE  
BASQUE CULTURE  
DOCUMENTATION CE



IKERKETA  
**EUSKAL ARMADAKO  
BRIGADISTA  
TXINATARRAREN BILA**



## PIL-PILEAN 376

2021ko ekaina

Azaleko argazkiaren egilea:  
Itziar Ugartemendia.

### Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Eider Unamuno  
Gandiaga
- 6 **Begira** Besarkada
- 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 14 **Argazki bidez** Kontrargi
- 16 **Plazan bazan** Umeendako jolasak
- 20 **Erreportajea** Brigadista  
txinatarraren bila
- 26 **Kirola** Errugbi eguna, hockeya eta  
Soraren taberna
- 27 **Kultura** Jaiak eta Oreka Art galeria
- 30 **Nondik nora** Imanol Sancha  
Llamas, Aka Sanchä
- 32 **25 urte zuekin** Ekaineko  
efemerideak
- 34 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak,  
oroitzak, iragarki laburrak...  
IRITZIA
- 3 **Neuretik** Gotzon Eliizburu  
*Euskara auzi politikoa da*
- 18 **Gutunak** Gure Esku eta Urrats  
Dantza Taldea
- 18 **Komiki tira**
- 19 **Hausnarketa** Ticket Bai komertzio  
txikietan
- 19 **Puntua** Gaizka Azkarate Uzin  
*Emateagatik eman.*



**Pil-pilean herri  
komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen  
Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

**SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO  
UDALA**

# Euskara auzi politikoa da



GOTZON ELIZBURU BERISTAIN

**E**satzen dutenez, badira garaiak iruditzen zaigunak ezer ez dela gertatzen eta aldiz beste aro batzuetan, bat-batean, azelerazio izugarriak gertatzen dira. Euskarari eta euskalgintzari zegokionez banuen nik behintzat halako sentsazio bat azken urteetan. Nafarroa Garaian eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan egoerak lasaitasunerako txanparik ez du eman inoiz, baina Euskal Autonomi Erkidegoan inpassa bat eman da azken urteetan.

Ezagutzari dagokionean, azken 40 urteetako jauzia itzela izan da eta horretan instituzioek zein herri mugimenduak erantzukizun partekatua dutela aitortu behar da. Azken urteetan aldiz, erabileran jarri da arreta handia, hutsuneak nabarmenak baitira maila guztietan. Globalizazio aro honetan, kultur kontsumorako mugak lausotu edo hautsi dira eta merkatuaren lege basatian legez, neurririk hartu ezean indartsuenaren legea gailentzeko eta gure herria hor urtzeko arriskuak handiak dira.

Eta hara non, egun gutxiren baitan, richter eskalan 6ko edo 7ko lurrikara eragin duten zenbait gertakarik: Euskadiko Auzitegi Nagusiak Irungo udaltzainen kasuan emandako sententzia, Nafarroan haurreskolekin dagoen borroka eta Atarrabiako lan eskaintza publikoaren auzia eta Frantziako Konstituzio Kontseiluak murgiltze ereduaren aurka hartutako erabaki larria. Auzi hauek guztiek eta horietako bakoitzak gogorarazi digute menpeko herria dela gurea eta ez daukagula erabateko burujabetzarik gure hizkuntza politika erabakitzeko ere. Euskal hiztunak bigarren mailako herritarrak garela gogorarazi digute.

Euskarak Estatua behar du. Demokrazia kontua ere baita hizkuntza eskubideen errespetua. Azken urteetan, gobernuetatik norbanakoaren ardura eskusiboaren gain jarri nahi izan dute euskararen biziraupena, hizkuntza politikan dena irabazitzat emanaz bezala. Marko erabat liberala eta tranpatia izateaz gain, euskararena auzi politikoa ere badela ahaztu nahi izan da.

Azken gertakari hauek, ordea, hizkuntza politikan jauzi berriak emateko unea dela erakutsi dute, hamarkadetan irabazitakoan atzera egiteko arriskua izugarria baita maila guztietan eta beraz, politikaren unea da honetan ere.

**EUSKAL HIZTUNAK  
BIGARREN MAILAKO  
HERRITARRAK  
GARELA GOGORARAZI  
DIGUTE**

# “Osasuntsu mantenduko gaituen medikuntza behar da”

---

## UBANE MADERA

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

---

Eider Unamuno Gandiagak (Soraluze, 1979) *Cuida los dientes de tu hijo* liburua idatzi du. Harrera bikaina izan du eta bigarren edizioa atera eta latinoamerikan ere argitaratuko dute laster. Edozein liburu-dendatan eta Interneten eskura daiteke. Baita Iratxo goxo-dendan ere.

### **Asko harritu nau jakiteak, liburuan diozun moduan, ahoak garezurraren garapenean eragiten duela.**

Bai. Goiko haginak goiko masail-hezurrean daude eta hezur hori garezurraren parte da. Masail-hezurra ondo ala gaizki, asko edo gutxi edo zein norabidetan hazi gehiago, horrek asko aldatuko du garezurraren hazkuntza, haren parte delako.

### **Jendeak badaki hori?**

Ez, ezta dentista askok ere. Neuk ere berandu jakin nuen. Jakitean, asko indartu nintzen mezu hori zabaltzeko. Konturatu nintzen oso garrantzitsua dela horren berri ematea, haginak konpon daitezke beranduago, baina garezurra ez.

### **Liburuan diozu, baita ere, haginei ez diegula garrantzia gehiegirik ematen.**

Batez ere esnezko haginei, jausiko direlako-edo. Liburuan diodan moduan, partida baten, adibidez, lehen ekipoa ateratzen diren jokalaria horiek dira esnezko haginak. Partida batean ez dira jokalaria onenak bankilloan lagatzen. Hasieratik zoaz dituzun onenekin. Hor ya partida bideratuta lagako duzu. Haginekin berdina da. Esnezko haginak daude umea hazten doanean; pertsonaren hazkuntzarik handiena orduantxe emango da. Beraz, hazkuntza hori ondo ala gaizki egingo den esnezko haginaren egoerak ere esango du. Adibidez, esnezko hagin batean kariesa badago, ba akaso gauza gogorak jateari lagako diogu edo alde batetik bakarrik mastekatuko dugu... eta horrek bere ondorioak ekarriko ditu. Edo beste adibide bat: esnezko hagin batengatik 50 euro ez ordaintzearen, bukatu ahal duzu 3.000 euro ordaintzen geroko ortodontziarekin. Guk, osasun langileok ere falta dugu prebentzioarekiko

kultura. Osasuntsu mantendu behar gara. Hori da helburua.

### **Mastekatzea esan duzu. Liburuan garrantzia berezia ematen diozu. Zergatik?**

Ahoa hazten da berarekin egiten dugun gimnasiaren arabera. Askok uste dute geneek esango dutela zelako aho mota izan eta guk ia ez dugula eskumenik. Ez da horrela. Aho batek gimnasia asko egiten badu garatuta haziko da. Zein gimnasia? Bada titia hartu, jateko gogorak (osoak) jan... Oso garrantzitsua da jakitea guk ere badugula zer egin ahoa ondo hazteko.

### **Zeri eragin ahal dio mastekatzeak?**

Ahoa da sistema digestiborako atea. Ahoa ez bada jakiak ondo txikitzeko gai, adibidez, urdailak lan handiagoa egin beharko du eta sor daitezke haizeak, tripako minak... Horrez gain, masailezurra mugitzeko erabiltzen diren muskulu asko garezurrera doaz, lepo aldera, klabikulara... Muskulu horiek lan larregi egiten badute edo batek besteak baino gehiago, beste edozein muskulu moduan, horiek ere mindu egingo dira eta horrek esan nahi du izango ditugula buruko-minak, lepokoak, sorbaldakoak, izterrekoak... Kirolean moduan. Baina kirola egiteari laga egin ahal zaio eta jateari ez. Eta hori egiteko makinak ez badu ondo funtzionatzen, igarri egiten da.

### **Umeen hagineta zentratzen zara. Heldua zarenean ez dago atzera bueltarik ala?**

Prebentzioa lantzeko ume txiki-txikieta hazi behar zara. Helduekin dagoen marjina txikiagoa da, baina beti dago marjina.

### **Beste zerbait nahi baduzu gaineratu...**

Liburu honekin nahi izan dut esan osasuna ulertzeko beste modu bat dagoela. Nire jakintza esparrua haginena da, hortaz, hortik jardun dut. Baina gaixotasuna sendatzen duen medikuntza bat baino, osasuntsu mantenduko gaituen medikuntza batera joan behar dugula uste dut. Ni horretan saiatzen naiz. Pandemiatik dator, adibidez, liburua. Oso kontziente naiz oso jende gutxi dakiela nik kontaktatu nahi dudana mezua.











## Besarkada

---

**ARGAZKIA:** EGOITZ UNAMUNO LOIDI

**TESTUA:** UBANE MADERA ZANGITU

---

Ezoziko plazan ginen, dantza entseguan eta bat-batean oihu bat entzun zen eta gelditu egin ginen denok. Zer? Begira! Ziztuan elkarrenagana hurreratu ziren bi lagun ikusi genituen elkar besarkatzen eta eurei begira gelditu ginen guztiok. Besarkada estua izan zen, Marga eta Miren ama-alabek elkarri eman ziotena, luzea, amaigabea. Pandemia dela-eta urte eta erdi eman dute fisikoki elkarrekin egon barik eta hara non, alaba abisatu Ezoziko plazan. Zelako poza! Eurena eta bertan geunden beste guztiona. Ostean, are eta griña handiagoarekin jarraitu genuen dantzan. Pandemia arindu ahala besarkadak bueltatuko diren itxaropenak indartuta edo...



Skate parkeko lanak geldi daude egunotan, euriarengatik.

# Uztailean bukatuko dute Skate parkea

Skate Eguna egingo dute uztailearen 24an, herriko Skate parke berria ezagutarazteko, esparruaren inaugurazio modura

Azken egunotan egiten ari den euriteen ondorioz, lanik egin ezinda daude skate parke berria eraikitzeko. Horren ondorioz, atzerapen apurtxo bat izango dute obren amaiera datan. Hala ere, uztailean bukatuko dituzte lanak eta jaietan bertan estreinatuko da esparru berria.

## Skate Eguna

Patricia Borinaga Udaleko Haur eta Gazte Saileko arduradunak esplikatu duenez, skate parkea estreinatzeko, hura ezagutzera emateko eta zelanbaiteko inaugurazioa egiteko, Skate Eguna antolatu dute. Uztailearen 24an izango da, goizez eta arratsaldez.

Skate parkea bera eraikitzen ari den Getxoko La Kantera Skate Eskolako skate-zaleek eta arituek hartuko dute parte Skate Egunean.

Batetik, materiala ekarriko dute eskolatik, soraluzetarrek skate pistak proba ditzaten.

Eta bestetik, skate erakustaldiak egingo dituzte.

## Osagaiak

Ekainean hasi ziren obrak egiten, padel pistaren ondoan. Zementuzkoa da eta honako osagaiak ditu: Bi quarter (alde banatan), 6 metro luze eta 80 cm garai direnak; erdian, 80 cmko diametroa duen eta 35 zm altu den duna bat; 3 metro luze, 75 cm zabal eta 35 cm altu den tiradera eta bi jauzi-arrapala; eta skaterako bi baranda. Horrez gain, esparrua argiztatzeko fokuak jarri dituzte eta hesia ere ipiniko dute, deskuiduan skaterik errepidera jausi ez dadin.

29.500 euro (BEZ aparte) inbertituko dute skate parkea eraikitzen.

## Ludoteka eta gaztelekua

Uztailearen 2ra arte izango da zabalik udal ludotekarako edo udal gaztelekurako datorren ikasturterako izen-emate epea.

Bietarako kuota da urtean 40 eurokoa da. Baina familia batean bi matrikula edo gehiago baldin badaude, 30 eurokoa da kuota.

Izena emateko, formularioa bete beharra dago. Soraluzeko Udalaren web orrian zein [Plaentxia.eus](http://Plaentxia.eus) atarian egin daiteke hori.

Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 4. mailara bitarteko umeei zuzendutako zerbitzua da Ludoteka eta Gaztelekua, berriz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoei zuzendutakoa.

## Gazteendako udako ekintzak

Aurten, estreinako aldiz, DBHko 1. eta 2. mailako gazteendako aisialdiarekin lotutako ekintzak antolatu dituzte udarako. Uztailearen 19an egingo dute DBHkoendako lehen irteera, Mutrikuko hondartzara joango dira egun pasa. Bigarren irteera, berriz, uztailearen 21ean eta 22an izango da. Mendi ibilaldia egingo dute eta gaua mendian, San Andresen, pasatuko dute, hurrengo eguneko eguerdira arte. Izena aldeztu aurretik eman beharra dago, uztailearen 2a baino lehen. Bete beharreko izen-emate orria Udalaren web orrian zein [Plaentxia.eus](http://Plaentxia.eus) atarian aurki daiteke.





Txaro eta Amparo Fernandez saltokian, astelehenean.

## "DENDA INDARTSU DAGO ETA USTE DUGU HERRIAN BADAGOELA DENDA HONEN BEHARRA"

**"Ez dugu denda ixterik nahi"**  
Saltokiaren egoera ona dela azpimarratu dute bi ahizpek: "Fatxada eta teilatua egin berri ditu, IAT pasatuta du eta urtean 34 euro bakarrik ordaintzen dugu komunitatea. Dendan denetik dugu: drogeria, ogia, enbutidoak, izoztutako produktuak... Denda indartsu dago. Saldu egin nahi dugu erretiratu egin nahi dugulako, baina ez dugu denda ixterik nahi, uste dugulako herrian beharra dagoela. Ezin badugu saldu, alokatu egingo dugu".

Kontaktua: 943 75 13 38.

# Auto-servicio Amparo salgai dago

Txaro Fernandezek erretiroa hartu nahi du, hori dela eta, berak eta Amparo ahizpak salgai jarri dute Auto-servicio Amparo supermerkatua

Gabolats kalean dago Auto-servicio Amparo. Bi ugazaba ditu, Amparo eta Txaro Fernandez. Azken horrek 46 urte daramatza dendan lanean. Eta erabaki du baduela atsedenerako uea. Hori dela eta, saltokia salgai jarri dute.

### Alokairuarekiko interesa

"Ez dugu presarik, baina bihar bertan norbait etorriko balitz denda erosteko prest, bihar bertan salduko genioke. Etorri da jendea galdezka, baina saltokia alokairuan hartzeko. Etorri direnek ez zuten dirurik saltokia erosteko. Baina guk uste dugu saltokia errentan hartzea dirua botatzea dela. Dirua guri eman beharrean, banketxeari ematen badiote, halako batean, denda eurena izango da", esan dute.

## "Dendan beti dago jendea"

**TXARO TA AMPARO FERNANDEZ** AUTO-SERVICIO AMPAROREN JABEAK

Txarok zein Amparok, biek uste dute aukera ona dela saltokia.

### Zeini interesa dakiok?

Gazteei seguro. Lan atsegina da. Ez duzu titulurik behar eta ez da aparteko jakintzarik behar, lan egin eta atsegina izan bezeroekin, besterik ez.

### Negozia segurua da?

Negozia martxan dago eta auto-pagatu egiten da. Hau da, mailegua ordaintzeko zein bi soldata ordaintzeko beste ematen du. Lanean hasten zaren lehen egunetik dauzkazu irabaziak eta bezero fidelak ditu. Denda honetan beti dago jendea. Hori bai, dendan bi lagun behar dira, hori argi izan behar da. Pertsona bakarrak ezin du.

### Baina zenbat orduko lana egiten duzue?

8 ordu egunean, zapatuetan bost. Gainera, etxera ez dugu lanik eramaten; egin beharreko guztia dendaren ordutegian egiten dugu.



# "Administrazioak bermatu behar du guztiok izatea etxea"

PATRICIA BORINAGA UDAL GOBERNUAREN ORDEZKARIA

---

## TESTUA ETA ARGAZKIAK

UBANE MADERA ZANGITU

---

Soraluzeko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu berri dute, Pascual Churruca lantegiaren orubean etxeak eraikitzeko. Besteak beste, 29 etxebizitza nahi dituzte egin, guztiak alokairu sozialera bideratzeko.

### **Zergatik etxebizitza guztiak alokairu sozialerako?**

2015ean onartutako Etxebizitza Legeak zehaztu zuen 2020tik aurrera, etxebizitzarekin lotutako Eusko Jaurlaritzaren eta administrazio publikoen baliabide guztiak, etxebizitzak berritzekoak izan ezik, alokairua sustatzeko politiketara bideratu behar direla.

### **Zergatik?**

Filosofia kontua da. Erakunde edo administrazio publikoetatik, guztion diruekin, etxebizitza erostea bultzatu behar da ala jendeak etxebizitza duina izatea bermatu behar da? Europako herri gehienetako irizpidea da erakunde publikoek bermatu behar dutela pertsona guztiek izatea etxebizitza duina.

### **Baina orain arte ez da halako politikarik egin.**

Urteekin, etxebizitza politiken garapena handitzen doa eta norabidea alokairura zuzendutako etxebizitza parke egonkorra lortzea eta handitzen joatea da. Etxebizitza parke hori errotorioa izan behar da eta behar handienak dituzten pertsonen zuzenduta egongo dira beti.

### **Zelan?**

Alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko bete beharreko baldintza ekonomikoak errebisatu egingo dira aldiro. Hartara, mota horretako etxebizitza baten hartzaile batek baldintza ekonomiko horiek betetzeari lagatzen badie alokairu sozialeko etxebizitza izateko eskubidea galduko du eta beharra duen beste norbaiti emango zaio.

### **Zeintzuk dira baremoak?**

2012ko Lege Dekretuan ezarritakoak. Hiru irizpide hartzen dira aintzat: Etxebiden izena emandako antzinasuna, diru-sarrerak eta bizikidetzaren unitatea osatuko duten kide kopurua. Dena den, kupoak daude zehaztuta, pertsona

guztiei bermatu ahal izateko alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea. Kupoak honakoak dira: promozioen %40 gazteei dago bideratuta; beste %40 etxebizitzarako eskubide subjektiboa dutenei; %10 kolektibo zaurgarrirei eta beste %10 gainerakoei.

### **Gazte batek, adibidez, ze baldintza ekonomiko bete behar ditu halako etxebizitza bat eskuratzeko?**

3.000 eta 25.000 euro arteko diru-sarrera ponderatuak akreditatu behar dira. Ponderazioa egiten da bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztien diru sarrerak kontuan hartuta eta diru sarrera horien jasotzaile den pertsona kopurua kontuan hartuta. Bestalde, 18-35 urteko gazteendako bada Gaztelagun izeneko programa bat. 2019an abiarazi zen. Etxebizitza libreetan bizi diren gazteei alokairua ordaintzeko laguntza zuzena ematen zaie. Gehienez 250 euro. Eta badago, baita ere, pertsona nagusiendako edo behar bereziak dituztenendako beste aukera bat: haien etxebizitza ez badago egokituta



Patricia Borinaga kontzejupean.

euren beharretara, haiek ere eska dezakete alokairu sozialeko etxebizitza bat.

**Baina gazte asko herritik kanpora joaten da hemen ez dagoelako etxe berririk erosterik....**

Jaurlaritza, guztien diruekin, ahaleginu behar da baldintzak bideratzen pertsona guztiak etxebizitza duina izan dezaten, baina ez etxeak erosi ditzaten. Etxeen salmenta bultzatzeko aukera bat da herriak erakargarritasunen bat izatea ekimen pribatua erakartzeko. Eta ekimen pribatu horrek ahalko luke etxeak eraiki saltzeko, bai libreak eta baita babestutakoak edo tasatutakoak ere.

**Eta herriak ez badu erakargarritasunik? Gainera alokairurako kulturarik ez dago orain arte ez baita bultzatu.**

Hori aldatu beharra dago. Pertsonari bermatu behar zaio

etxebizitza izatea. Erostea norbere diruarekin egin beharra dago. Gobernutik edo Udaletik bai egin daiteke lanketaren bat herrian baldintza erakargarriagoak sortzeko edo erraztasunak emateko, promotoreendako etxeak eraikitzea erakargarriagoa izan dadin. Baina Jaurlaritzak ez du erosketara bideratutako promoziorik bultzatzen, Visesak ez du saltzeko eraikitzen.

**Hortaz, Soraluzen ze aukera legoke erosi nahi dutenendako?**


Egitamu Orokorrean badaude portzentaje batzuk gordeta etxeak egiteko, baita salmentarako ere. Horretan ere badihardugu. Olaldean eta SAPAn etxeak daude aurreikusita. Udaletik Olaldean ari gara indarrak jartzen. Lortu behar duguna da esparru hura erakargarri izatea norbaitek hura garatzeko interesa izan

## "HERRIKO ERREALITATEA ZAILA DA BAINA ETXEA EROSTEKO KULTURA ALDATU BEHAR DUGU"

dezan. Hiru alderdiok elkarrekin landu beharra dugu hori. Egia da Soraluzeko errealitatea zaila dela baina erosteko kultura ere aldatu beharra dugu.

**Ez da aukerarik ikusten herrian dauden etxe hutsei zelanbaiteko aprobetxamendurik emateko?**

Lehen, Udal bakoitzak ezartzen zituen etxe hutsa izendatzeko baldintzak. Ekainaren 8an onartutako Etxe Hutsen eta Etxebizitzaren Funtzio Sozialaren gaineko dekretuan, definitu da zer den etxe hutsa: bi urte baino luzaroago, modu jarraian okupatu gabe daraman etxea. Aldi berean, lege garantista da, etxe jabeari aukera ematen baitzaio etxe hori hutsik ez dagoela justifikatzeko. Etxe bat hutsik dagoela deklaratzeko prozedura Udalak abiarazi behar du. Behin etxebizitza hutsik dagoela deklaratu ondoren, kanon bat ezarriko da, egoera horretan arrazoi justifikaturik gabe jarraitzen duen bitartean. Baina, jabeai alokairua kobratzeko bermeak eskaintzen dizkien Eusko Jaurlaritzaren Bizigune Programan ere sartu ahal izango da.



Hainbat bisitari Dolmenen Ibilbidea egiten.

# Dolmenen Ibilbidea bisitarien zain

Mendi ibilbideak egitera doazenendako picnic mahaiak ipiniko dituzte, Arranaitz-Arrondo izeneko Udalaren lursailean

Domekan, uztailaren 4an hasiko dira aurtengo Dolmenen Ibilbiderako bisita gidatuak. Halako zazpi egingo dituzte, batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz, azkena urriaren 16an.

Ohi denez, Karakarteko aparkalekutik abiatuko dira, 10:00etan eta lau ordu inguruko ibilbidea egingo dute, gidariak lagunduta. Parte hartzeko, aldezturik izena eman beharko da 657 794 677

telefonoan edo [info@begi-bistan-com](mailto:info@begi-bistan-com) helbidean.

Aurten, bi berritasun izango dira ibilaldiotan. Batetik, ez dira doan izango. Helduek 5 euro ordaindu beharko dute eta 12 urtetik beherakoek 3 euro. Bergaran, Elgoibarren edo Soraluzen bizi direnek, berriz, prezio erdia.

### Sei picnic mahai

Bestetik, ibilbidea bukatzean, bertan mokadutxo bat egin edo bazkaldu nahi dutenendako picnic mahaiak izango dira.

"Ikusi da han behean (miradorearen azpian) dagoen mahai bakarra gutxitxo dela eta erabaki genuen gehiago ipintzea, jendeak Dolmenen Ibilaldia edo bestelako ibilaldiren bat egin ostean, tokiren bat izan dezan", esplikatu du Iker Aldazabal alkateak. Xehetasunen arabera, Arranaitz-Arrondo udal lursailean ipiniko dituzte sei mahai, Urtaizelaiko iturri parekoak modukoak, egurrezkoak. Mahaiok eskatuta daude eta ailegatu bezain laster ipiniko dituztela esan du alkateak.

## Azken urteotako ume kopururik handiena aurtengo udalekuetan

Oraindik pandemiak baldintzatutako egoera bizi dugun arren, iaz ez bezala, aurten ume ugari animatu da udalekuetan izena ematera. Are gehiago, oso gertu ibili da orain arteko ume kopururik altuenetik, aurten 171 umek eman baitu izena eta errekorra 180 umetan dago. Itxaron zerrenda ere sortu da, izena epez kanpo eman

dutenekin eta kanpoan geratu behar izan dira, leku faltarengatik.

Udaleko Haur eta Gazte Saileko Patricia Borinaga arduradunak balorazio oso positiboa egin du. "Pozgarria da ikustea, pasa duguna pasata, jendeak baduela normaltasunera bueltatzeko gogoia. Gainera, udalekuak garrantzitsuak dira umeendako, bertakoendako zein

kanpotik etorri direnak bertan eta bertakoekin integratzen laguntzeko".

Kukumixo Aisialdi Taldea azken xehetasunak lantzen ari da, uztailaren 5etik aurrera umeek ahalik eta udaleku gozagarrienak izan ditzaten. 16 begirale eta Miren Gallastegi koordinatzailea arduratuko dira horretaz. Gallastegik iragarri du aurten bai izango dutela aukera irteerak egiteko, txikienak Aulestira joango dira eta nagusienak Mutrikuko hondartzara.



# Lanerako orientazio tailerrak, uztailean

Antolatzaileek uste baino jende gehiago ari da izena ematen laneratzeko laguntzeko edo lanpostua hobetzeko tailerretan

Lan bila dabiltzanei edo lana hobetu nahi dutenei zuzendutako doako tailerrak eskainiko dituzte uztailean. Parte hartzeko hiru baldintza bete behar dira: adinez nagusia izatea, Soraluzen erroldatuta egotea eta Lanbiden izena emanda izatea. Lanerako baimenik ez dutenek ere parte har dezakete.

Tailerak HHIn (EPA) lokaletan eskainiko dituzte (Baltegieta kalean), Zabaltzen-Sartu Kooperatibaren eskutik. Goizez izango dira, 09:00etatik 13:00etara.

## "Harrituta", kopuruarekin

Kooperatibako kide den Yolanda Urzelai Gisasola lan orientatzaileak esandakoaren arabera, "harrituta" daude orain arteko izen-ematearekin;



Yolanda Urzela HHIko bulegoan.

apenas bi egunotan 15 lagunek eman du tailerretarako izena.

Bost tailer eskainiko dituzte; horietatik bi izango dira euskaraz oinarri-oinarrizko jakintza eskuratzeko. Elikagaien manipulazioarekin lotutako ikastaroa ere oinarritzkoa izango

da, baina kasu horretan, ikastaroa egin izanaren diploma eskuratzeko dute egiten dutenek; gainontzeko tailerren kasuan ez.

## Ekainaren 30a baino lehen

Tailerretarako izena ekainaren 30a baino lehen eman behar da, HHIn bertan (Baltegieta, 2). Ikastaro bakoitzean 10-15 lagunendako lekua izango da.

Bestalde, Urzelai lan orientatzaileak esan duenez, asmoa dute udazkenean beste tailer edo ikastaro batzuk eskaintzeko.

## Tailerak

- Elikagaien manipulazioa, 4 ordu
- Euskara pertsonen zaintzan, 15 ordu
- Euskara industria sektorean, 15 ordu
- Enplegua online bilatzea: lana bilatzeko bideak, profil profesionala, curriculum... 15 ordu
- Kosmetika naturala, eskulanak... 15 ordu

## Hiru lanpostu betetzeko izen-emateak zabalik, Udalean

Soraluzeko Udalak hiru lanpostu betetzeko deialdiak argitaratu ditu: bi peoi eta Zerbitzuetako eta Bulego Teknikoko erdi mailako teknikaria.

Peoien kasuan, bi hilabeterako lan eskaintza da, lanaldi osoan udal brigadan jarduteko. Zereginak izango dira hiri-altzari eta parkeen

mantenua, hilerriko ehorzketak eta antzerako lanak egitea.

Izen-ematea gaur, ekainaren 25ean bukatuko da. Udaletxeko Harrera Bulegora jo beharra dago horretarako.

## Plaza jabetzan

Zerbitzuetako eta Bulego Teknikoko erdi mailako teknikari lanpostuari

dagokionez, berriz, lanpostu hori jabetzan betetzeko deialdia egin du Udalak.

Kasu horretan, izen-ematea ekainaren 22an zabaldu zuen eta 20 egunez izango da zabalik.

Argitaratutako xehetasunen arabera, hautaketa prozesua lehiaketa oposizio bidezkoa izango da eta sarrera libreko sistema.

Deialdiaren oinarriak Udalaren webgunean kontsulta daitezke. Besteak beste, Soraluzekoa izatea lehenetsiko dute.

# Oporrak

---

**TESTUA** UBANE MADERA

---

ARGAZKIAK MIKEL VALERO ETA ALBERTO ARIZAGA, KONTRARGI  
ARGAZKI KOLEKTIBOKO KIDEAK

---

Opor usaina nabari da kalean. Joan den barikutik oporretan dira ikasleak eta herritarren artean ere berbetagai nagusienetakoa dira ate joka ditugun udako oporrak.


Opor giro horixe transmititzen dute Kontrargi Argazki Kolektiboko Mikel Valeroren eta Alberto Arizagaren argazkiek ere: gerizpeak, itsasoa, opor lekuak, Deba... Egunotan, argazkiok ikusgai daude Kiroldegiko erakusketa gelan.

Oharra: Alberto Arizagak bere argazkiak erakusketatik erretiratu ditu, Udalarari aretoko zaintza zerbitzuagarekiko bere desadostasuna adierazi eta gero.






Urolbarria, Karabaiten  
Marko Aizua



Deba  
Marko Aizua







Ordena itzazu dortokak handitik txikira (handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6). Ondoren dortoka guztien oskolak apainduko dituzu, honela: Lehenari edo handienari laukiak marraztuko dizkiozu, bigarren handienari hexagonoak, hirugarrenari erronboak, laugarrenari hirukiak, bosgarrenari biribilak eta seigarrenari uhinak.

## Handitik txikira



## DOMINOAN

Osatu lauki zuriak, honoko domino zati honek zentzua izan dezan.



## bilatu

Zenbat limoi-erdi ote daude koadro honetan? Beste zortzi elementu ere errepikatuta daude, bi aldiz ageri dira. Zeintzuk dira? Bide batez, margotu gustuko dituzun marrazkitxoak.



# Oporrak non?

Marraztu zure burua uharte galdu honetan eta basamortuan, gameluaren gainean. Nor marraztuko duzu aldamenean? Lagunen bat? Txakurra? Kolore biziz margotu.

## Gejezi garraia

Aurki itzazu bi inbidien artean dauden aldeak. Hamaika diru guztira.



U			Z	R
	E			
I			D	
	R	Z		
	R	U		
Z	E	D		I

## Sudokua

Bete itzazu sudokuaoren lauki zuriek IZURDE hitza osatzen duten lettrak kontuan hartuta (I, Z, U, R, D eta E). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



## GUTUNAK

---

### **Autobusa erreferendumaren aldeko mobilizaziora joateko**

#### **SORALUZEEKO GURE ESKU**

Uztailaren 3an, Bilboko Areatzan erreferendumaren alde egingo den mobilizaziora joateko autobusa antolatu dugu. Arratsaldeko 16:00etan aterako da Estaziñoko geltokitik. Izena eman daiteke Iratxon, Batzokian eta Arranoan, uztailaren 1era bitartean.

### **Euskal dantzetan izena emateko epea zabalik**

#### **URRATS DANTZA TALDEA**

2021-2022 ikasturtean LH1 mailatik aurrerako ume eta gaztetxoei zuzendutako euskal dantza eskoletan izena emateko epea zabaldu dugu. Datorren

ikasturtean eskolak astelehenetan izango dira ondorengo ordutegian: DBH 16:00-16:45, 5. maila 16:45-17:30, 1-2-3. maila 17:30-18:15, mutilak 18:15-19:00, 6. maila 19:00-19:45.

Izena emateko azken eguna uztailaren 31a izango da.

---

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

---

## KOMIKI TIRA



## HAUSNARKETA

**Ticket Bai fakturazio sistema berria**

Merkatariek uste dute denda txiki asko itxi egingo direla



**IÑAKI ETXABE**  
HARAKINA

"Guretzat hau bukatu da. Datorren urtean denda itxiko dugu, beste inork ez badu hartzen, behintzat. 65 urte ditut eta Ticket Bairekin.... Hori ez baletor, beste bi urtean-edo segituko nuke, baina horrekin ez. Denda morderoa itxiko direla uste dut nik".



**EZOZI ARIZAGA**  
BASERRITARRA

"Desberdina izango da. Txarrena da nahasten bagara, zer? Inork ez daki zelan izango den. Denda asko itxi egingo dira. Gutuna ailegatu zait, baina oraindik enteratzeko nago. Deklarazioari ere eragiten dio horrek. Ikusi egin behar".



**JUAN MARI GURRUTXAGA**  
ARRAINDUNA

"Desastre hutsa da. Denda eta negozio txiki asko itxi egingo dira. Handiek ez dute arazorik izango, baliabide morderoa dituzte, baina txikiek ez. Eta gero? Herriak hutsik. Oraingoz, ez dut ixteko asmorik baina, ikusiko dugu ea zelako baliabideak behar diren".



**ITZIAR AGIRRE**  
IRATXO GOXO-DENDA

"Gastu handia da, inbertsioa egin behar da eta gero hilero mantenu gastua. Lan handiagoa eta motelago lan egitea ere ekarriko du. Denda handiei ez die horrenbeste eragingo, txikiei min egingo die. Ez da momentua. Pandemia eta gero oso flojo gaude eta ez da garaia".

## PUNTUA



**GAIZKA AZKARATE**

**Emategatik eman**

Zenbaitentzat garrantzitsuena besteen ongizatea da. Horregatik norbere zorientasunaren gainetik kokatzen dute ingurukoena; familiarena, lagunena... Balore kontua izan daiteke edo beharrak bultzaturiko hautua, batek daki. Kontuak kontu, horrelako pertsonak dauzkagu inguruan eta sarri ez gara ohartzen hor daudenik ere galtzen ditugun, edo okerragoa dena, bere kabuz joaten diren arte.

Babesturik, zaindurik eta maitaturik sentitzen garenean, hau da, zorientsu gaudenean, ez gara ingurura begira jartzen, beti ez behintzat. Berandu normalean, gero damutzeko.

Jarrera hauek identifikatzeko gai garenean ahalegintzen gara gure egiten. Gustatzen zaizkigu, eta besteen zorionaren parte izateak berotzen gaitu; zaila da lortzea. Probatzea besterik ez dago, ekintza txikiak egitea inguruan ditugunak pozik ikusteko eta horrek sortzen duena sentitzeko. Beti ez da asmatzen eta batzuetan min ematen du emandakoa bueltan ez duzula jasotzen sentitzeak.

Saiatzen jarraitzea ederra izan daiteke. Ez da jasotzeko eman behar, eman behar da eta kitto!

Joan zinen, baina hor zaude oraindik.



# Txinatar bat Euskal Armadan

Begoña Ariznabarreta (Soraluze, 1953) Luis Espilla milizianoaren alaba da eta iaz ikerketa abiatu zuen aitak gerran lagun izan zuen Aking Chang brigadista txinatarraren ondorengoak topatzeko. Hamar hilabeteren ostean, ikerketak fruituak eman ditu eta, bide batez, sakonago ezagutu ditu aita eta gerra.

Testua: **Egoitz Unamuno.**  
Argazkiak: **Itziar Ugartemendia eta Rober Ariznabarreta.**

**I**az, konfinamendua ezarri zenean, Begoñak, bere ahizpekin batera, aitak Gerra Zibilari buruz idatzitako eskuizkribu sorta aurkitu zuen: “Ganbarako materialen artean agertu ziren eta, tartean, aiba! “Rusos y chinos en el Ejército Vasco” eta “ Un chino en el Ejército vasco” izeneko bi eskuizkribu. Lehenengoan, kontatzen du nola asturiarrek euskal soldaduak euskaraz entzun zituztenean, pentsatu zuten errusiarrek zirela; eta bigarrean, berriz, aipatzen du gerrako azken asteetan “Shangai” izenez deitzen zioten txinatar bat izan zutela gudakide "Iparreko frentean".

Begoñak interneten kontsultatu zuen gaia eta “Los brigadistas chinos en la Guerra Civil” liburuarekin egin zuen topo (Txina, 2001). Gaztelerazko bertsioa (Bartzelona, 2013) eskuratu eta lehen orrietan aurkitu zuen bilatzen zuena: Aking Chang brigadistaren aipamena. Ordea, ez zioen ezer aitak kontatzen zuenaz, alegia, Chang Gijonen lehorreratu zela eta Euskal Armadako kide izan zela.

Hari horri tiraka, Begoña harremanetan jarri zen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko itzultzaileekin, eta euren laguntzaz lortu zuen liburuaren jatorrizko egileekin kontaktatzea, Hwei eta Len Tsou-rekin, Kalifornian bizi diren txinatar jatorriko senar-emazteekin. "Informazioa trukatu ostean, esan nien polita izango litzatekeela Changen ondorengoei aitaren eskuizkribuak ematea eta, harrezkero, elkarrekin dihardugu ikertzen". Azken asteotan, Gijonen eta Parisen aurkitu berri dituen pistek are gehiago hauspotu dute ondorengoak aurkitzeko itxaropena.

Begoña Ariznabarreta, esku batean aitaren argazkia eta bestean brigadista txinatarrei buruzko liburu duela.





## LUIS ARIZNABARRETA 'COMPAÑIA PLACENTINA'-KO ETA AMUATEGI BATAILOIKO KIDE IZAN ZEN

## AKING CHANG TXINAKO DELEGAZIOKO ORDEZKARI BATI ENTREGATU ZIOTEN, 1943AN

### Aita, miliziano eta preso

Datuak osatu nahian, Gasteizko "Sancho el Sabio Fundazioan" ziharduela, ezustean, 90eko hamarkadan Carlos Blasco Olaetxea Fondoak aitari egindako elkarrizketaren audioa aurkitu zuen Euskadiko Artxibo Historikoan. "Audio horretan nire aitaren kontakizuna dago, Plazentziatik atera, Asturiasen preso hartu eta askatu zutenera bitarte. Altxor handia da guretzat eta inpaktagarria momentu askotan".

Eskuizkribuetan eta audioan kontatu zuenarekin ari da osatzen aitaren gerrako ibilera: 1936an, 20 urte zituela, "Luis Ariznabarreta 'Espilla' boluntario aurkeztu zen Euskal Armadan borroka egiteko. Lehenik, Compañía Placentinako kide izan zen (hainbat ideologiatako 200 bat plazentziatarrekin batera) eta, ostean, Amuategi batailoi sozialistako miliziano. Basalgo, Irure eta Arrateko fronteetan atzeraka hasi eta bonbardaketaren testigu izan zen Gernikan. Etxanon, Lemoan eta konta ezin ahalako batailatzen egin zuen borrokan, 1937an Trubian (Asturias) inguratu eta preso hartu zituzten arte. Han hasi zen galtzaileen "kalbario handia".

Garaileek preso hartu eta gero, hiru urte egin zituen preso eta bat "errekruta". Lehen hiru urteetan, Espainiako hainbat kontzentrazio esparrutan eduki zuten, batez ere, lan behartuak eginaraziz: Mieres (Asturias), El Picadero eta San Marcos (Leon), Santoña (Santander), Teruel, Cuenca, Guadalajara, Castellon... Azkenik, 1940an, Plazentziara ekarri zuten guardia zibilarren koartelera baina handik

Donostiara bidali zuten "errekruta", zigorra luzatuz beste urtebetez. 1941eko abenduan bueltatu zen etxera, baina baldintzapean eta herritik ateratzeko debekua ezarrita". Gainera, 1936 eta 1945 urteen artean, aita, ama eta bi anai galdu zituen, gaixotasunen eraginez.

### Shangai "laguna"

Luis Ariznabarretak *Un chino en el ejercito vasco* eskuizkribuan kontatzen duenez, Asturiasen ezagutu zuen Shangai, nazionalak preso hartu baino zortzi bat aste lehenago. "Cecedan geundela (Asturias), Shangai hirian sortua zen txinatar bat heldu zen gure artera, bi euskaldunek lagunduta, gure Brigadan enrolatzera. Nire eskuadrara destinatu zuten eta geurekin batera egin zuen borrokan, eta preso ere geure ondoan izan genuen. (...) Honenbestez,



1938an, lan behartuen batailoian, Ontanedan (behean, ezkerretik bigarrena). EAH.

### "Nire bihotza oso minduta dago..."

Luis Ariznabarreta 1941ean itzuli zen etxera... "Gaur etxeratu naiz, baina ez askatasun osoarekin. Nire bihotza oso minduta dago..." dio hiru bertso ondu baino lehen. Bihotzean mindu du, hainbat lagun, eta anaia, betiko galdu dituelako gerran. Honela dio lehen bertsoak: "Mendi gainetan eta bide baztarretan, ainbat ta ainbat il ziran kartzel barrenetan. Goietatikan bera zigorrez besteak gaixorik etorriak morduak il ziran penarekin lertuak uringo lurretan".



aitatzen dudan txinatarrak euskaldunekin batera egin zuen borrokan. Shangai deitzen genion, bere jatorrizko lekuaren izena horixe zelako. Gure arteko euskaldun bat gehiago izan zen, bai borrokan eta baita kartzelan ere. Leongo kartzelan galdu nuen bere arrastoa, deklarazioa hartu eta gero, bera lekuz aldatu zutenean, ez dakit nora. Ni Santoñako kartzelan gelditu nintzen. (...) Shangai laguna, Gasteizko txoko honetatik, Euzkaditik, besarkada eta agur bero bat, bihotzez zuri. Koldaritz”.

### Arrastoa Parisen

Begoñak jakin ahal izan duenez, Aking Chang-ek bere herrialdetik ihes egin zuen barku batean, "bizitza salbatzeko, Txinako alderdi nazionalista atzetik baitzuen sindikatu komunista bat sortzeagatik". Gijonen lehorreratu zen eta han Errepublikaren aldeko Euskal Brigadan sartu zen.

Datu gehiago jakin nahian, maiatzean, Avilako Artxibo Militarera idatzi zuen eta bi asteren buruan jaso zuen erantzuna: "1943ko irailaren 23an Aking Chang Txinako delegazioaren ordezkari bati entregatu zioten, Moncha Wei andereari". Interneten begira hasi eta andrearen eskela aurkitu zuen, aurtengoa. Bilaketarekin jarraituta, andrearen lobak aurkitu zituen Gijonen eta eurek baieztatu diote izeba martxoan hil zela, 97 urterekin. Begoñak uste sendoa du azkenean Aking Chang aurkitu duela. "Bere bila joan zen emakumearekin ezkondu zen, Montxa Weirekin. Berarekin bizi izan zen Parisen izena aldatuta, eta 1975ean hil zen, ondorengorik gabe. Lobak aurkitu ditut eta eurekin harremanetan nago, dokumentuen bidez dena konfirmatzeko”.

Garaileek ekoiztutako 'Prisioneros de Guerra' dokumentaletik ateratako irudia. Eskuma aldean ageri dena da Aking Chan. SANCHO EL SABIO.

Otsailean, gaiari buruzko artikulua argitaratu zuten Txinan. Artikulua kontsultagai dago 'Reminiscencias en España/Oroitzaztarnak Espainian' izenarekin [www.sanchoelsabio.eus](http://www.sanchoelsabio.eus) webgunean. Egilea: Hwei-Ru Ni.





# "Aitak ireki zuen zirkulua itxi nahi dut"

**BEGOÑA ARIZNABARRETA ORBEA**  
ANTROPOLOGIAN LIZENTZIATUA

## **Aita 2003an hil zen. Zergatik ekin diozu ikerketa lan honi?**

Ba, begira, eskuizkribuak aurkitu nituenean, gai hontaz artikulua bat idaztea nahi nuen, baina konturatu nintzen gerrari buruz ez nekiela ia ezer. Gainera, familian uste zabaldua zen gure aitak kontaktzen zituen gauza asko berak asmatutako istorioak zirela... Txinatarrarena eta... Baina, bai zera! Orain konprobatu dut aitak esaten zuen guztia egia zela. Txinatar batek borroka egin zuela Euskal Armadan. Datu hori ineditoa da, orain arte, ez zen inon ageri.

## **Zer kontatu zizuen aitak gerraz?**

Gure aitak bizitza guztia eman zuen gerrari buruz hizketan. Ia bazkalondo guztietan ateratzen zuen gaia. Baina anekdotak bakarrik kontaktzen zizkigun. Ez zigun mina transmititu nahi, ez zuen gugan gorrotorik sortu nahi. Berak jasan behar izan zuen krudelkeri eta errepresio guzti horretatik gu babestea nahi zuen.

Aitak idatzi egiten zuen terapia moduan. Bertsoak ere idazten zituen eta kantatu izan ditugu familian. Ni saiatu nintzen bera grabatzen gerrarena konta zezan, baina ez nuen lortu, ihes egiten zidan, eta pena handia neukan horregatik.

**Baina, hara non, aurkitu duzu berari egindako elkarriketa baten audioa Euskadiko Artxibo Historikoan.**



Begoña Ariznabarreta aitaren argazkia eskutan. ITZIAR UGARTEMENDIA.

Bai, niretzat altxor handia da eta kontaktzen dituen gauza askok inpaktatu egin naute.

Esaterako, kontaktzen du Itxarkundia batailoiko hamabi lagun hil zituztela, bere koadrilakoak, eta beste leku baten lagun bat enterratu zutela eta ezin izan zutela gorpua atera eurekin eroateko hegazkinak zetozelako... Eta beste harek bere buruaz beste egin zuela, eta beste hainbat itsasoan hil zirela itota... Eta heriotza, heriotza, heriotza eta heriotza. Inpaktatuta nago. Terriblea da.

## **Urtebete daroazu Chan Aking-en ondorengoan bila.**

GURE AITAK BIZITZA  
GUZTIA EMAN ZUEN  
GERRARI BURUZ  
HIZKETAN

## **Zergatik da hain garrantzitsua zuretzat?**

Zirkulua itxi nahi dut. Aitak bere eskuizkribu bat amaitzen du esanez: "Shangai lagun, zauden tokian zaudela, agur bero bat bihotzez zuri" eta nik eskuizkribu hori Shangairen ondorengo bati entregatu nahi diot.

## **Ikerketak fruituak eman ditu, ezta?**

Bai. Uste dut Aking Chang aurkitu dugula. Parisko emakumearen ilobak, Cayo Weik (Gijon), uste du Aking Chang bere osaba zela, eta nik ere bai. Izena aldatu zuen China nazionalistatik ihes egin zuelako eta 1937tik 1943ra arte Espanian preso egon zenez, arazoak izan zitzaizkela 1943an Frantzian zeuden naziekin.

Oso pozik nago. Bera dela baieztatzen bada, aitak ireki zuen zirkulua ixtea lortuko dugu.



## LUIS “ESPILLA” (Soraluze 1915 - Gasteiz 2003)

Luis Ariznabarreta Zubiaurre “Espilla” Soraluzen jaio zen, 1915eko urrian 29an. Ariznabarretatarrak jatorriz Espilla baserrikoak izanik (Ezozu auzoan), jatorrizko baserriaren izenez deitzen zioten.

### Hautzaro zorionsua

Lau anai-arrebetan zaharrena zen Luis eta berak kontatu zuenez hautzaro “zorionsua” izan zuen Plazentzian.

Sei urte zituela hasi zen eskolan, fraileekin eta hantxe entzun zituen gaztelerazko “lehen berbak”.

Zazpi urterekin kanturako frogak egin zizkioten korurako, eta Migel Olaizolarekin batera aukeratu zuten solista moduan jarduteko. Flauta jotzen ere ikasi zuen eta liberalen bandan jo zuen 3 urtez.

### Miliziano gerran

Gaztetan, Juventudes Socialistas Unificadas-eko eta UGTko kidea izan zen. 1936an, hogeitau urte zituela, boluntario moduan joan zen gerrara, herritarrek sortu zuten Compañía Placentina milizian eta gero Amuategi batailoian. Gerra galdu ostean, lau urte luze egin zituen preso.

### 1956an, Gasteizera

1945ean, Rosita Orbea Gallastegi osintxuarrarekin ezkondu zen Plazentziara eta 1956an, artean lau seme-alabako familiarekin, Gasteizera jo zuen bizitzera, plazentziatarren Hermanos Zabaleta lantegian



Luis eta Rosita (erdian) seme-alabekin Espilla baserria zenaren atarian. B.A.



Luis Ariznabarreta gaztetan. B. A.

GAZTETAN, JSU ETA  
UGT-KO KIDE IZAN ZEN  
ETA BOLUNTARIO JOAN  
ZEN GERRARA.

kontratata. Geroztik, familia Gasteizen bizi izan zen eta zortzi seme-alaba izan zituzten, tartean, azken alaba, Esther, Down sindromearekin jaio zena eta bere “pozik handiena” bihurtu zena.

**Eusko Alkartasunako kide**  
1977an EAJn afiliatu zen eta 1986an, berriz, EAJ zatitu zenean, Eusko Alkartasunako kide egin zen.

Zahartzaroan ere kantatzeko eta ikasteko grinari eutsi zion, asko irakurriz eta kantatuz. Gudari eta miliziano izandakoen solasaldietan parte hartu zuen eta EAko abesbatzan kantatu ere bai.

Hil baino hiru urte lehenago Alzheimerak jo zuen eta 2003ko abuztuaren 23an hil zen, 86 urte zituela.



Sora Errugbi Taldeko hainbat guraso eta jokalarri Ezoziko zelaian.

# Errugbia ezagutzera emateko eguna

Errugbi Eguna egingo dute uztailaren 17an, kirol jarduera horren onurak partekatu eta jarduera herritarren artean gehiago ezagutarazteko

Ezoziko Futbol Zelaian egin dute Errugbi Egunerako hitzordua, uztailaren 17an. 11:00etan hasita, umeendako jolasak, errugbi hagetan sartzeko lehiaketa eta beteranoen arteko partida izango dira. Gainera, futbol zelaiko taberna zabalik izango da egun horretan.

Sora Errugbi Taldeko kideek azpimarratu dute herritar guztiak daudela ekimenera gonbidatuta. Azken batean, Errugbi Egunaren helburua da kirol jarduera horrek dituen onurak zein jarduera bera herritarren artean ezagutzera ematea herritarrek parte har dezaten animatzeko.

**Erabateko genero berdintasuna**  
"Uste dugu herrian dauden kirol ohikoekiko alternatiba ona dela errugbia. Eta nahiko

genuke herrian bertan harrobitxoak sortu, edo sikiera, Soralezeko umeei aukera eman kirol hau herrian bertan praktikatzeko", diote antolatzaileek.

Izan ere, uste dute errugbiak onura garrantzitsuak eskaintzen dituela: "Errugbian edozeinek jardun dezake; genero berdintasuna erabatekoa da; ez dago kuotarik ordaindu behar eta aniztasuna bultzatzen dugu taldean. Bestalde, errugbia kontaktua duen kirola da, baina ez da biolentoa. Gainera, errugbian taldea da garrantzitsua, ez dira jokalarri indibidualak saritzen, jokalarri batek bakarrik ezin baitu ezer egin. Eta jende guztiak dauka lekua, guk atek zabalik ditugu adin eta mota guztietako jendearendako, etorri eta proba dezatela. Hori lortu nahi dugu".

## Tabernarako langile bila

Soraluze Futbol Taldeak pertsona bat behar du Ezoziko Futbol Zelaiko taberna kudeatzeko eta bertako aldagelak garbitzeko. Gainera, lanpostu hori betetzea presazkoa da, izan ere, futbol zelaiko taberna uda honetan bertan zabaldu nahi dute, bertako ur txorroak aurtengo udan ere erabili nahi baitituzte.

Adinez nagusia izatea, autonomia izatea edo egitea, futbol partidak daudenean taberna zabaltzea eta aldagelak garbitzea dira baldintzak.

Eskaintzarekiko interesa duena Sora Futbol Taldearekin jarri behar da harremanetan (Gorka: 650189547).

## Hockeyrako izen-ematea zabalik

Hockey edo irristaketa zaleak datorren ikasturtean hockeyan aritzeko Marras Irristaketa Taldean izena ematen hasi dira. Marras Irristaketa Taldetik esandakoaren arabera, gainera, jende berria ere ari da izena ematen.

Edozelan ere, izena emateko epea ekainaren 30era arte dago zabalik. 2007tik 2013ra bitartean (bi urteak barne) jaiotakoei zuzendutako deia da, baina 2006an eta urte horren aurretik jaiotakoek ere izango dute parte hartzeko aukera. Azken horien kasuan honako helbidera idatzi behar dute: [marrasirristaketa@gmail.com](mailto:marrasirristaketa@gmail.com).

# Jaien ordezkoko ekitaldiak

Aurten jairik ez egitea erabaki du Udaleko jai batzordeak, baina osasun neurriak arintzen dihardutela ikusita, egun horietan iaz baino kultur ekitaldi gehiago antolatuko dituzte.

Ekainaren 15ean batu zen jai-batzordea eta, gaur gaurkoz, jaiak normaltasunez egiteko baldintzarik aurreikusten ez denez, aurten ere ofizialki herriko jairik ez egitea erabaki dute herriko hainbat eragilek eta Udalak. Hori bai, uztailean zehar, kirol- eta kultur-ekitaldi mordoxka antolatuko dituzte, beti ere, egunez, jendepilaketak eragozteko.

## Kirola, musika, dantza, bertsoa...

Kirol ekitaldiei dagokionez, aipagarriak dira ondorengo hauek: Errugby Eguna (uztailaren 17an), Urban Highline (18an), Skate Eguna (24an) eta Frontenis Txapelketa (24an eta 25ean).

Kultur emanaldiei dagokionez, berriaz, honako hauek: Galtzagorriek antolatutako kontzertua (23an); Munduko


Arrozak jaialdi gastronomikoa, Demode Quartet-en *Epa txiki* izeneko emanaldia eta Gune Musik-ek antolatuko duen DJ Jaia (24an); txistularien kalejira, Voces Navarras jota taldea eta bertso jaialdia (25ean); eta gaiteroen kalejira, dantza-jauzien saio irekia eta Korrontzi taldearen kontzertua (26an).

## Bi ekitaldi atzeratuta...

Udalak erabaki du uztailean 10erako eta 17rako programatuta zeuden Zintzilik haurrentzako kontzertua eta Euskal Danbolinaren aroak txistu ikuskizuna udazkenara atzeratzea. Izan ere, uda giroa heltezarekin batera, jeitsi egin da Antzokian egiten diren ekitaldietara joaten den ikusle kopurua. Hortaz, barruko ekitaldiak antolatzeko egokiago izan daitekeen garaira aldatzea erabaki da.

## MUSIKA (FUNK)

### Assata (Arrasate)



Igande arratsaldean musika beltza izango da entzungai Assata taldeak Gaztelupeko terrazan eskainiko duen kontzertuan. Assata Shakur aktibista beltza omenduz, doinu beltz eta dantzagarriak fresko aurkezten dituen taldea da Arrasatekoa. Funk doinuak, rock bandako kideekin. Doinu beltzak, euskaraz.

*Ekainak 28, domeka, 19:00etan, Gaztelupeko terrazan.*

## MUSIKA (TANGO)

### Malevaje (Madril)



Tango klasikoa estilo propioarekin lantzen duen talde beteteranoa da Malevaje. 80ko hamarkadaren erdialdera Madrilen sortu eta gaur egunera bitarte, hamabost disko baino gehiago kaleratu dituen taldea. Kontzerturako sarrerak lratxo goxodendan eskuratu ahal dira 5 euroko prezioan.

*Uztailak 3, zapatua, 19:30ean, Antzokian.*

## HITZALDIA

### Patxi Biskert 'Ombuaren itzala'



Pedro Mari Otaño bertsolariaren bizitza eta obra jasoko dituen *Ombuaren itzala* filma egin ahal izateko auzolana abiatu du Eguzki Art Zinema ekoizpen etxeak. Patxi Biskert aktore eta zinegileak hitzaldia eskainiko du proiektuaren nondik norakoan berri emateko eta ahalik eta herritar gehien auzolanera biltzeko. *Ekainak 29, asteartea, 19:00etan, Tolarekua aretoan.*

# Arte galeria zabalik

EKAINEAN ZABALDU DITU ATEAK OREKA ART GALERIAK GABOLATSEN



Alberto Ramirez, galeriaren arduraduna, margolanen bilduma gordetzen duen aretoan.

---

**TESTUA ETA ARGAZKIAK** EGOITZ  
UNAMUNO LOIDI.

---

Oreka Art galeria zabalik da berriz, Gabolatseko 9 eta 11. atarietan. 150 metro karratuko lokal ederra da, barruan hiru gune nagusi dituena: erakusketa areto nagusia (kaletik ikus litekeen eskaparate zabala duena), margolanen aretoa (biltegia ere badena) eta bigarren solairuan dagoen bulegoa eta sormenerako espazioa. Eragozpen bakarra, irisgarritasuna, aretora sartzeko

zenbait eskailera igo behar dira eta.

## **Ibilbide berria**

Ramirezek ilusioz ekin dio galeriaren ibilbide berriari. "Artea pasioz bizi dut eta galeriarekin apustu potentea egin dut. Nire motibazio bakarra da jendearengan artearekiko sentsibilitatea piztea, gozaraztea eta helburu horrekin ahaleginduko naiz ezagutzen ditudan eta ezagutu nahi ditudan artisten lanak gurera ekartzen".

## **Hurrengo erakusketak**

Dagoeneko lotuta daude datozen hiru-lau hilabeteetan galerian ikusi ahalko diren erakusketak: Uztailean, Juan Ayesta (Beasain, 1960) artista plastikoaren obra izango da ikusgai; irailean, Juan Manuel Arruabarrena plazentziatarraren margolanak; urrian, Vicente Iriondo eibartar margolariaren lana; eta urte amaierarako, berriz, Afrikako artelanen bilduma berezi bat ekarri nahiko luke (arte egipziarra ere bai).



**Mendikuteren 'Baso isila'**

Julio Mendikuteren Baso isila izan da Oreka Art berrian ikusgai izan den lehen erakusketa. Ekainean zehar, egurrezko 11 eskultura "abstraktu" eta "figuratibo" eta 6 margolan izan dira ikusgai areto nagusian. "Argazkilaritza laga dut gauza berri batean zentratzeko", esan zuen urtetan argazkilaritza landu duen Mendikutek erakusketaren aurkezpenean. Horrekin batera, Ramirezen ekimena goraipatu zuen: "Soraluzeren neurriko

herri batean arte galeria bat izatea sekulakoa da".


**Teknika japoniarra**

Orain dela bost urte inguru ekin zion egurrekin eskulturak egiteari, Shou Sugi Ban teknika japoniarraren erabilita. "Egurra iraunarazteko teknika japoniarra da. Lehenik egur zati bat aukeratzen dut, gero erre egiten dut eta lixatu ostean, olioia eta argizaria ematen dizkiot, edertzeko". Margolanak berriz, "quimigrama" teknikaren bitartez egin ditu.

**Juan Ayestaren obra uztailean**

Uztailean, Juan Ayesta artista beasaindarraren obra izango da ikusgai galerian.

Ayesta, ibilbide luzea duen artista plastikoa da. Pinturaz gain, instalazioak eta performanceak landu dituena. Bere garaian, herrian erakutsi zuen instalazio bat (Gabolasko zubian) zer esana eman zuena; "arratoiak ageri ziren sare batean gora". Ayestaren lanek "beti harritzen dute ikuslea eta ziur oraingoan ere harrituko gaituela" dio Ramirezek.



Julio Mendikute eskultorea.




Melancholia.



Calma.



Delirio.



Levedad.

# "Musikarekiko eta musika sortzeko pasio handia daukat"

IMANOL SANCHA LLAMAS, AKA SANCHÄ SORALUZETIK BUENOS AIRESERA

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: IMANOL SANCHA

---

Etiketean ari dela hartu du Pil-pileanen deia Imanol Sancha Llamasek (Soraluze, 1988), Buenos Airesen. Diseinatzailea da eta Service Design lanak egiten ditu, zerbitzuen diseinuak. Hango akademia baterako dihardu lanean, baina aldi berean, musikari ere badihardu eta lehen EPa argitaratu du. **Zelako EPa argitaratu duzu?** Musika techno-melodikoa egiten dut. Bi kantu ditu EPak, Kemena eta Alur (Amalurretik dator azken horren izena), eta Ingalaterrako diskoetxe batekin argitaratu dut. Entzungai dago plataforma digitaletan, Spotifyn eta abar.

## **Zelan animatu zara?**

Beti gustatu izan zait musika, gurasoei esker. Umetan musika eskolara apuntatu ninduten eta tronpetara eta gitarrara ikasi nituen. Soraluzen taldea ere bagenuen, Junzai Txetxera, Gotzonekin, Ikerrekin eta Mikelekin. Musikarekiko eta musika sortzeko pasio handia daukat. Buenos Airesko musika eskolan, goi mailako ikasketak egiteko




Imanol Sancha Llamas, AKA Sanchä, nahasketa mahaiarekin

aukera dago eta Musika Elektronikoaren Produktzioa ikasi dut, lau urteko ikasketak. Produktzioarako behar den guztia ikasi dut, zerotik abesti bat egiteraino, DJ lanbidea ikasteraino: biniloak nahasten, softwarea, zuzenekoak sortzen... Nahasten ondoikasi nahi nuen, produktzio propioak egiteko. DJ baten gainbalioa da bere musika ere ipini ahal izatea edo beste norbaitek bere musika pintzatzea.

**Erraza da EP bat ateratzea?**

Abesti elektronikoak bukatzea da zailena. Mordoa nituen, baina ez nituen bukatzen. Musika eskolako irakasle batek lagundu dit, mentore dut. Hari esker, beste bi abesti ere bukatu ditut eta Ukrainako diskoetxe batean onartu dizkirate. Azaroan publikatuko dituzte. Beste bost abesti ere bukatzen nabil, horiek ere bidaliko ditut diskoetxeetara. **Zenbat denbora batetik bestera.** Musika elektronikoaren mundua horrela da. Orain pintzatzen ari diren kantu bat



Imanol Sancha. MARTIN THOMPSON

Imanol Sancha Llamas, Service Design lanak egiten.

askoz ere lehenago bukatutakoa da. Zigiluek kantuak ateratzeko programatutako egutegia dute. **Etorkizuna musikatik nahiko zenuke?**

Orain nire hobbie printzipala da. Hobeto pasatzen dut kantuak edo musikarekin lotutako jarduerak egiten nire lanbidekoak egiten baino. Uste dut baietz, baina noizbait erabaki hori hartu behar badut, kostatu egingo zait. Musika barik ez litzaidake gustatuko aurrera egitea. Ez dakit, musika eta nire lanbidea biak batera edo zelan.

**"ARGENTINAN EDOZEINEK DU EUSKAL ARBASOREN BAT ETA ETXEAN BEZALA HARTZEN ZAITUZTE"**

**Hori non egingo duzu, Argentinan, edo bueltatu egingo zara?**

Gurasoei eta lagunei beti esaten diet: *Hurrengo urtean*. Baina oraingoan argi daukat hemengo nire zikloa bukatzen dabilela. Ezagutzen dudan beste jende asko ere ari da zikloz aldatzen... Familia faltan botatzen dut, 2015etik bizi naiz hemen eta



Kemena EParen azala.

gutxi ikusi ditut, igartzen dut familiarengandik gertu egon nahi dudala. Gainera, kanpoan egonda, bi senideren galerak tokatu zaizkit, aitonarena eta amonarena; gogorra da maite duzun jendearengandik urrun egotea.

**Zerk lotzen zaitu horra?**

Hau ekonomikoki desastre hutsa da, baina nire soldatarekin Buenos Aires erdian bizi naiteke. Han hori oso zaila da. Hala ere, urtebete edo bi urte barru, sikiera Europara bueltatzeko esperantza dut.

**Argentinan ondo?**

Ia etxean moduan. Hemen ezagutzen duzun edozeinek du euskal abizenen edo euskal arbasoren bat, hangoa zarela jakiten dutenean, oso ondo hartzen zaituzte. Adibidez, urtero euskal etxe guztiak elkartu eta Euskal Herriaren eguna egiten dute. Ikusgarria da, benetan. Han egongo bazina moduan sentitu zaitzke.

**Besterik nahi baduzu gaineratu...**

Musika elektronikoarekin pentsatzen duen edozeinek mundu iluna irudikatzen du, drogez beteta... Ez da horrela. Hemen ya beste begirada batekin ikusten da. Estereotipo horiekin apurtzea nahiko nuke.

# Azken 25 urteotako kronika: ekaineko gertakariak

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU  
**ARGAZKIAK:** PIL-PILEAN

---

Ekainaren ikur dira suak, zorionez, Soraluzen pizturik dirau, nahiz eta hainbat urtetan ia itzali. Osterantzean, urteurrena, obrak eta kirol lorpenak dira nagusi.

1996-2001

---

## Suak, obrak, dominak eta jaiak

90eko hamarkadaren amaieran, galtzen zebilen San Juan gaua ospatzeko ohitura. 1997ko ekainean, ia herriko auzo guztietan sua egitetik Estazioan eta Baltegietan soilik egitera pasa zen. Pil-pilean Euskara Elkarte eta Estazioko auzokideak (Estazioan egiten zen suak bazuen indarra) hasi



Cine Soraluze parrokiarena zen.



San Andresko frontoia (2001).

ziren ohitura hori berreskuratu nahian. Ahaleginak fruituak eman zituen eta lortu zen, izan ere, 2002an, 200 lagun elkartu ziren Plaza Berrian, suaren bueltan.

Bestalde, 1998an bete zituen Soraluze Musika Eskolak 10 urte.

Herriaren eraldaketaren baitan iragarri zuten Cine Soraluze botako zutela 2001eko uztaillean. Parrokiako zinema zen eta 50 urte bazituen.

Bestalde, Arrate Azkona gorenengo mailan zebilen. Espainiako txapelkun izan zen 2001ean, 1,65 metroko jautzia eginda altueran eta 12,02 jauzi hirukoitzean. 2002ko ekainean, berriz, absolutu mailako altura jauziko Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, 1,69 metroko jauziarekin eta 2003ko ekainean

errekorra ondu zuen, junior mailan, jauzi hirukoitzean, 12,90 eginez. Altuera jauzian ere jauzi bikaina egin zuen, 1,79koa.

Bereziak izan ziren 2001eko San Andres auzoko jaiak. Deigarriena striptease-a izan zela, gogoangarriena, Munua frontoia inauguratu zela eta mugituena Tapia eta Leturiaren dantzaldia.

2002-2010

---

## Zubi Nagusiko obrak, asfaltatzea eta organoak 100 urte

2002ko ekainean hasi ziren Olako presa apurtzen, Albesako zubia egiteko lanen lehen fasean. Urte bereko ekainean debutatu zuen profesioaletan Aritz Laskurain pilotariak. Eta urte berean, inauguratu zuten Ezoziko parkea eta bolatokia. Ermita ere berritu zuten eta Uriarte gotzaina bertaratu zen.

2003ko ekainean, laga zioten anbulatorioan zapatuatan mediku zerbitzua izateari. Orduetik aurrera Elgoibarrera joaten hasi ziren larunbatetan.

Ezoziko Amak 10. urteurrena bete zuen.

2008an Zubi Nagusia zabaldu zuten zirkulaziora, zubia eraberritzeko lanak bukatu ondoren.

2009ko ekainean ipini zen lehen aldiz ostadarraren bandera udaletxeko balkoian.





Zubia berri aurretik eta ostean (2008).

2010ean elizako organoak 100 urte bete zituen. 1590ean sinatu zen organoa elizan jartzeko lehen kontratua. 1720an entzun ziren lehen melodiak, Inazio Iraolagoitiaren eskutik. 1872. urtean Hermenegildo de Amezuak bigarren organo bat ekarri zuen. Gaur egun dagoena, ordea, 1910. urtekoa da, Bartzelonan egina eta handik ekarritakoa. 16.000 pezetako kostua izan zuen.

2010ean Etxaburueta eta Plaza Zaharreko asfaltatze-lan bete-betean zegoen herria.

2011-2015

### Sora preferentera eta lehen alkate andrea

2011n, Sorako A erregionala preferente mailara igo zen. Zale

asko hurreratu zen zelaira. Eguraldia lagun giro polita izan zen Ezozin. Gero, herrira jaitsi eta igoera ospatzeko ekitaldia egin zuten 21:00etan udaletxeko balkoian, jokalaria eta ordezkariak.

2011n, berriz, izendatu zen herriko lehen alkate emakumezkoa: Hiart Arluziaga.

Abarrots handia sortu zen herrian Promociones Uneberri enpresak hainbat herritar etxe eta diru barik laga baitzituen.

2015an, Irene Perez Arribasek jubencil mailako gimnasia erritmikoko Euskadiko txapelketa irabazi zuen, 18 urterekin.

Ixa Rodriguez boxeolariak, berriz, Espainiako txapelketa irabazi zuen.



Soraren ospakizuna udaletxean (2011).

2016-2021

### Lagun Maiteak elkarteak 50 urte eta danborrada barik

2017an, Lagun Maitea elkarteak 50 urte bete zituen. Lagun Maiteak elkartearen izen bereko koadrilak eratu zuen 1967. urtean. Lehenengo bilera Allegro elkartearen egin zuten hogeita bat lagunek. Elkarteak bazkide denak gizonetzkoak ziren, noski. Lagun Maitearen bazkide egin zen lehen emakumea Yolanda Merino izan zen, 2002. urtean, bere aita hil ostean. Orduan aurrera, emakumeak normaltasunez egin dira bazkide elkartearen.

2018an, berriz, Danborradako Batzordeak jakinarazi zuen jende berria behar zuela ekimena antolatzen jarraitzeko. 2019an ez zen danborradarik egin. 2019an bertan abiarazi zuten hondamen espedientea Santa Ana 2 zenbakiko etxearendako. Horren ondotik, etxe horretan geratzen zen jarduera bakarra, Belarrak saltokia, Santa Ana 22ra lekualdatu zuten eta harrezkero, zubiko etxea hutsik dago.

2020 pandemia urte beteak. Jairik ez herrian, baina geldi egoteko gogorik ezta ere. Hori horrela, jaien ordean, Kulturaldia antolatu zuten eta halaxe iragarri zen ekaineko alean. Aurtengo maiatza-ekainean ere izan du zelanbaiteko jarraipena ekimen horrek.

## ZORION AGURRAK



**Maddi Oregi**  
Ekainaren 7an, 11 urte. Jarraitu halako jatorra eta alaia izaten. Etxekoan partez.



**Iker Laskurain Lopez**  
Ekainaren 6an, 8 urte. Asko Maite zaitugu. Familiakoak



**Carla Amutxastegi**  
Ekainaren 4an, 8 urte. Zorionak danon partez!!



**Ibai Soriano Sebal**  
Ekainaren 27an, 2 urte. Zorionak Ibai! Ondo ondo pasau ta pastela jan! Peru ta familia guztiaren partez.

## JAIOBERRIAK



**Lide Arriola Jhita**  
Ekainak 4an jaio zen.



**Aimar eta Unax Igartua**  
Uztailaren 5ean 9 urte. Zorionak familia guztiaren partez. Ze handi egin zaretin!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitatekoak; bi bide dituzu:

### Internet

Plaentxia.eu-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eu/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralera aldizkarian.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@pilpilean.eu](mailto:zorionagurrak@pilpilean.eu) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

### Hildakoak

Maria Concepcion Eguren Uriarte  
Perfecto Perez Alvarez  
Antonio Quintas Fernandez  
Jose Francisco Lizarralde Bollain

### Jaiotakoak

Lide Arriola Jhita

**MGS Seguros**  
Veronica Gallarraga  
Gertuko eta segurua



Astelehenetik ostiralera:  
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13  
Tel.: 645 744 055

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure gertuko hartz klinika, purtu puntuko teknologekin lan egiten dugu. Cast-Cam sistema berriak ere erabiltzen dugu.



Elizburu, 3 behea  
SOBALLUDE  
Tel.: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe.h@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

Justearen plazarrera, bertatik bertara

**Batzoki**



eguzkerko nerria  
antioxidatzaile  
kuma eta rasiok

eguzterkoak eta  
herborgeak  
erikago berriak

Batilla eta  
lagun arakak  
beharrik

Erretzikak 943 75 20 36

**MENDIZABAL okindegia**  
Ogia - Prentsa - Gogorik



Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbatak eta  
igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**IZAGUIRRE**  
Igeltzeritza




Erakitin berriak • Kalitateko emaitza  
Erreformak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

**Hortz klinika**

Erreal 1  
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologia  
K.Z. 48.000.591

27 urteko esperientzia  
odontologia, protesiak,  
odontopediatria, ortodontia,  
implantazioak, estetika...

Katia Guztina  
Odontologia  
K.Z. 48.001.541

Zerbitzu radiologiko orokorra (300:  
ekianeta, orfo eta tele).



ESKELAK

I. URTEURRENA

**Mikel Iñurrieta Arana**



2020ko uztailaren 5ean hil zen, 63 urte zituela.


Urte gogorra zu gabe, baina egunero zutaz oroitzen, zaren tokixan zarela segi holaxe gu zaintzen.

BETI gurekin egongo zara, asko maitxe zaitzugu.

Etxekuak.

I. URTEURRENA

**Javier Mendizabal Oregi**



2020ko ekainaren 19an hil zen 69 urte zituela.

Hostoak lehortzen doaz; zure oroimenak gure bihotzetan dirau.

Sendia.

**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgesak, egitarbeak, radiak, pizzaak, goxaria...

Enkarguak egiteko dira

Tel. 943 75 17 89

**KM design**

Kira Muntatzen

943 75 99 85

www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 3 BERGARA

Disainueta Fabrikazio lanak

Sukaloak  
Homo-ornatuak  
Logelak  
Zonak  
Atak...

Arotzeria lanak oro har

Instalazioak

**Kontulan**

abokatuak

Errenta, aldarpenak, Administrazio lanak  
Trafikua burokratia - Lan-erlako aholkularitza  
Enpresen kontuzio/ideazioak - Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era, 20190 Santxobe  
Tel. 943 75 07 85 / Fax 943 75 01 82

**KLB6**

Kalebarrak 6  
943 57 74 26

Multen-erata errenda modu guztian

www.kalbarrak6.com

BSB *Papa Juan* | SOLID | AB | VERO MODA | BUNICK | new balance

**FOGASLER**

ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Difat)

fogasleriturgintza@gmail.com

Euskalzaletasunaren alde:

**SOMABE** Supporting your projects

**aras**

**ALBISUA** S.L.

**laibi** ELECTRICIDAD

# GIPUZKOAK

# BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000  
gipuzkoarrei esker,

**Europar  
desberdintasun  
maila txikienetarikoak**  
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro

ETORKIZUNA  
**ERAIKIZ**  
#GipuzkoarKonpromisoa